



## Astindu dinamika sortu dute Euskal Herriko unibertsitateetan

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 17/10/2023

Dinamika honek ikasleen dominazio eta zapalkuntzen gaindipenaren bidean Euskal Herri independente eta sozialista bat eraikitzeke deia luzatu du.

Jardun Koodinadora jakinarazi zuenez atzo Euskal Herriko hainbat unibertsitateetan Astindu dinamika abiarazi dute. Dinamika honek Ibaietako kampusean(Gipuzkoa), Leioako kanpusean(Bizkaian), Gasteizko kampusean(Araban) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan hasiko da. Astinduk azaldu duenez "Hezkuntza sistema estatu espainarren zein burgesiaren interesak babesteko tresna dugu, Euskal Herriko ikasleek dominazio eta zapalkuntza politiko eta ekonomikoa betikotzeko tresna" honen aurrean eta "zapalkuntza ororen gaindipenerako baldintzak sortuko duen hezkuntzaren" bidean "Euskal Herri Independiente eta Sozialista eraikitzea" beharrezkotzat jotzen dute. Honi segida hemanaz azaldu dute beraien jardun politikoa "hezkuntza sistemaren problematika ezberdinen azterketa teorikoa egiteko, hauen inguruko kontzientziazioa sustatzeko eta hauei aurre egingo dieten antolakuntza eta proposamen politikoak praktikara eramateko dinamika modura" izango dela.

Era berean, Astindu kanpaina bat hasi du Euskal Herriko unibertsitateetan ikasleek pairatzen duten segregazio sozioekonomikoa seinalatuz eta euskeraren erabileraren baztertzea salatuz.

---

<https://eh.lahaine.org/astindu-dinamika-sortu-dute-euskal>